

UNICITIES 2030erako LAGUNTZEN DEIALDIA, UPV/EHUko UNIBERTSITATEKO IKASLEENTZAT, GASTEIZKO UDALAREKIN LANKIDETZAN LAN AKADEMIKOAK (GrALak ETA MALak) EGITEKO.

2023-2024 ikasturterako deialdia

UPV/EHUK, hurrengo deialdiaren bidez, **6 laguntza** esleituko dizkie 2023/24 ikasturtean UnicityES 2030 proiektuaren esparruan titulazio amaierako lana (GrAL, MAL edo PAL) egin nahi duten UPV/EHUko programetan matrikulatutako ikasleei, eta jarduera hori egiteko laguntza ekonomikoa (2000 €) eskainiko die.

UnicityES 2030ren helburua da unibertsitatearen eta hiriaren artean titulazio amaierako lanen garapena bultzatzea, hiri eraldaketa jasangarrian laguntzeko, klima neutraltasuna lortzeko hiriei aurre egin behar dieten erronka espezifikoak konponduz.

Kasu honetan, erantzun beharreko erronkak **Gasteiz hiriari** dagozkio, Hiri Adimendunen eta Klimatikoki Neutroen Europako Misiorako hautatutako 100 hirietako bati. Misioak tokiko, eskualdeko eta nazioko administrazioaren eta hainbat eragileren inplikazioa sustatzen du. Eragile horien artean funtsezkoa da akademiaren zeregina, eta, Gasteizen kasuan, UPV/EHUrena, hiriaren erdigunean dagoen campusa baitu: Arabako Campusa.

Eskabideak aurkeztea

Epea 2024ko otsailaren 2an hasiko da, eta 2024ko otsailaren 20an amaituko, biak barne. Eskabidea <https://www.ehu.eus/eu/web/iraunkortasuna/unicities-2030> webgunean, "Deialdia" atalean, edo UPV/EHUren erregistro elektronikoaren bidez egingo da.

Informazio gehiago: Iraunkortasun Zuzendaritza (iraunkortasuna@ehu.es)